



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2021EKO ABENDUAREN 22AN BASABURUKO UDALAK** **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko abenduaren 22an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, Xabier Azpiroz, Santos Etxegia eta M<sup>a</sup> Mar Ansorena.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Olatz Dorai eta Ricardo Arangoa.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAIZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Azaroaren 30ean egindako batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

- 2021/128 alkate ebazpena onartuz obra baimena ematea Jaucha S.L-ri Berueteke 11. poligonoko 504. lursailean dagoen nabea txerri-ustiategia jartzeko egokitzeko 6.805,81 euroko aurrekontuarekin.

-2021/129 alkate ebazpena obra baimena ematea Felix Beunza Larumberi Ihabengo 3. Poligonoko 6. Lursailean dagoen egurtegia egokitzeko 750 euroko aurrekontuarekin.

-2021/130 alkate ebazpena obra baimena ematea Felix Beunza Larumberi Ihabengo 3. Poligonoko 329. Lursailean etxe eskortarako eraikina egiteko 650 euroko aurrekontuarekin.

- 2021/131 alkate ebazpena Baimena emanaz Irati Munduate Apariciori , Apeztegierriko ganbara erabiltzeko, 2021eko abendutik 2022ko ekaina arte, pilates tonifikazio ikastaroa emateko astearte eta ostegunetan 12etatik 13:15etara eta 19:30etatik 20:45etara.

-2021/132 alkate ebazpena onartuz , Dorrea Gaztandegiari bueltatzea, 2019034102 zenbakidun abala Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean dagoen gaztandegiaren haunditze obrak egikaritzeko, 7.385,88 eurokoa

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

### **3.- Udal eraikinetan dauden gelak erabiltzeko ordenantzaren aldaketa. Behin betiko onespena.**

Alkateak azaltzen du gelen erabileraren ordenantzan adostu zela aldaketa bat txertatzea, ikasturte osoko iharduerak zirenean guztien epe batean eskaera egiteko eta ondoren ebaztea guztiak uztartuz egun eta ordutegiak, orain arte eskaera lehen egiten zuena baituzen lehentasuna gele erabiltzeko baimenaren ebazpena jasotzeko. Urriaren 7ko batzarrean hasiera batez onartu zen ordenantzaren aldaketa, aldaketa hau eta txertatu beharreko testua honakoa hau izanen da, “ Ikasturte osoko ihardueretarako, hots, hasiera urteko iraila-urrian eta bukaera maiatza-abuztua, eskatzaileek eskaera eta bestelako dokumentazioa iharduera hori burutuko duten urteko abuztuaren 16tik irailaren 7ra aurkeztuko dute. Eskaera guztiak bildu ondoren bakoitzaren ebazpena egingo da eta eskatzaileari jakinaraziko zaio. Ebazpenak onartzerako orduan kontutan hartuko dira ordenantzaren 9. Artikuluan zehazten diren irizpidean”

Onespen hau egin ondoren erabakia 1990/6 Toki Administrazioiko Foru Legearen 325. Artikuluaren arabera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan da, urriaren 26ko aldizkarian eta abenduaren 10a arte jende aurrekoa epean egon ondoren behin betiko onespena eman ahal zaio ordenantzaren aldaketari.

**Hortaz eta 1990/6 Toki Administrazioiko Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez onartzen dute udal eraikinetan dauden gelak erabiltzeko ordenantzaren aldaketa behin betikoz egitea eta ordenantzaren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute**

### **4.- 2021 plantilla organikoa. Hasierako onespena.**

Urtero bezala plantilla organikoaren onespena batzarrean egin behar da. Udaleko langileen plantilla 2021. Urterako honakoa izanik:

### 2021EKO PLANTILLA ORGANIKOA

| ZBKIA | LANPOSTUAREN IZENA              | MAILA TALDEA | SARBIDEA           | Osagarriak         | Hizk. profila                   | EGOERA    |
|-------|---------------------------------|--------------|--------------------|--------------------|---------------------------------|-----------|
| 01    | Administrari-ofiziala           | C            | Barne promozioa    | %12 M.<br>%28 L.O. | C1/EGA<br>edo<br>baliokidea     | Jardunean |
| 02    | Zerbitzu anitzetako langilea    | D            | Oposizio lehiaketa | %12 M.<br>%42 L.O. | C1/EGA<br>ahoz, B1<br>idatziz   | Hutsik    |
| 03    | Garbiketa zerbitzua             | E            | Oposizio lehiaketa | %46,38<br>L.O.     | B1<br>idatzia,<br>B2<br>ahozkoa | Hutsik    |
| 04    | Garbiketa zerbitzua             | E            | Oposizio lehiaketa | %25,76<br>L.O.     | B1<br>idatzia,<br>B2<br>ahozkoa | Hutsik    |
| 05    | Haur Eskolako zuzendaria        | B            | Oposizio lehiaketa |                    | C1/EGA<br>edo<br>baliokidea     | Jardunean |
| 06    | Haur Eskolako hezitzailea       | C            | Oposizio lehiaketa |                    | C1/EGA<br>edo<br>baliokidea     | Jardunean |
| 07    | Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola | E            | Oposizio lehiaketa |                    | B1<br>idatzia,<br>B2<br>ahozkoa | Hutsik    |

### IZENEN ZERRENDA

#### FUNTZIONARIOAK

| IZEN-ABIZENAK          | LANPOSTUA     | MAILA | ZERB. ONART. | GRADUA | OSAGARRIAK | EGOERA    | LANALDIA |
|------------------------|---------------|-------|--------------|--------|------------|-----------|----------|
| Elena Gaskue Jaunarena | Administraria | C     | 2000-03-28   | 3      | %12, %28   | Jardunean | %75      |

**LAN KONTRATADUN MUGAGABEA EZ FINKOA**

| IZEN-ABIZENAK                   | LANPOSTUA                       | MAILA | ZERB. ONART. | OSAGARRIAK | EGOERA    | LANALDIA |
|---------------------------------|---------------------------------|-------|--------------|------------|-----------|----------|
| Patxi Biurrarena<br>Barrenetxea | Zerbitzu<br>anitzetako langilea | D     | 2011-11-01   | %12, %42   | Jardunean | %100     |

**ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK**

| IZEN-ABIZENAK                             | LANPOSTUA  | MAILA | ZERB. ONART. | OSAGARRIAK | EGOERA    | LANALDIA |
|---|--|-------|--------------|------------|-----------|----------|
| Begoña Arano Galarza                      | Administraria  | C     | 2018/10/17   | %12        | Jardunean | %55      |
| Maite Sanchez Lasterra                    | Garbiketa zerbitzua  | E     | 2019/04/01   | %46,37     | Jardunean | %60,5    |
| M <sup>a</sup> Begoña Azpiroz<br>Muguruza | Garbiketa zerbitzua  | E     | 2006/01/01   | %25,74     | Jardunean | %60,5    |
| Cristina de los Reyes<br>Ayerra           | Garbiketa zerbitzua  | E     | 2019/11/08   | %25,74     | Jardunean | %60,5    |
| M <sup>a</sup> Paz Echarri Echeguia       | Haur eskolako<br>garbitzailea eta<br>jantokiko<br>laguntzailea | E     | 2017/11/02   |            | Jardunean | %100     |

**LAN KONTRATUDUN MUGAGABEAK**

| IZEN-ABIZENAK           | LANPOSTUA                    | MAILA | ZERB. ONART. | OSAGARRIAK | EGOERA    | LANALDIA |
|-------------------------|------------------------------|-------|--------------|------------|-----------|----------|
| Amaia Legarra Beunza    | Haur eskolako<br>zuzendaria  | B     | 2019/08/26   |            | Jardunean | %100     |
| Amaia Oloriz Satrustegi | Haur eskolako<br>hezitzailea | C     | 2019/08/26   |            | Jardunean | %100     |

Argitzeko geldituko da behin betiko onespenerako, garbiketako langileen E mailaaren aldaketa, kontutan hartuz Nafar Gobernuak hartu zuen erabakia E maila desagertu arazteko, maila horretan zeuden langileak D mailan jarritz.

**Bildutakoek aho batez 1990/6 Toki Administrazioiko Foru Legearen 235. Artikulua jarraituz onartzen dute hasiera batez Basaburuko udaleko plantilla organikoa 2021. Urterako eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute 15 egun baliiodunen epean.**

### 5.- 2022 tasa eta zergen onespina.

Abenduko ogasun batzordean aztertu direla tasa eta zergen kopuruak azaltzen alkateak eta batzarrean modu honetan onartzea proposatu da, ura eta kontribuzioa %3a igoz aurreko urtearekin alderatuz, eta kontutan hartuta 2020 eta 2021. Urteetan ez dela igoerarik egin.

#### URAREN TASAK:

- Ur kontsumoa 0.283 €/m<sup>3</sup>
- Ur hornidura kuota: 20,68 euro (seihilabeteko)
- Saneamendu kuota: 20,68 euro (seihilabeteko)
- Ur lotura 275,53 euro.

- Hiri kontribuzioa; 0.242.

- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.

- 1.20 ko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko

- Lurren baloreen igoeraren zerga, 2019an Tokikko Ogasun foru legearen arabera, mantentzen dira.

|                          |      |
|--------------------------|------|
| Urtebetetik<br>beherakoa | 0,09 |
| Urtebete                 | 0,06 |
| 2 urte                   | 0,11 |
| 3 urte                   | 0,20 |
| 4 urte                   | 0,28 |
| 5 urte                   | 0,36 |
| 6 urte                   | 0,30 |
| 7 urte                   | 0,13 |
| 8 urte                   | 0,06 |
| 9 urte                   | 0,06 |
| 10 urte                  | 0,06 |
| 11 urte                  | 0,06 |
| 12 urte                  | 0,06 |
| 13 urte                  | 0,06 |

|                            |      |
|----------------------------|------|
| 14 urte                    | 0,06 |
| 15 urte                    | 0,06 |
| 16 urte                    | 0,16 |
| 17 urte                    | 0,13 |
| 18 urte                    | 0,14 |
| 19 urte                    | 0,52 |
| 20 urte edo hortik gorakoa | 0,50 |

#### KARGA %25a.

AIZAROSKO EPAITZAK: PREZIO PUBLIKOA Finkatuko da gastua sortzen denean, eta pisuaren arabera kobratuko.

AIZAROSKO BARATZEN ERABILPENA: Hitzarmenean sinatu bezala 13 euro baratzeke kobratuko dira KPI-a igoz, kontutan hartuta baratzak lur patrimonialean kokatuak daudela eta hortaz kobratu beharrekoa lursail horri dagokion ordaindu beharrekoa, errenta bezala kontutan hartuko da.

#### HIRIGINTZA TASAK

Aurreko urtetan bezala mantentzea erabaki dute bildutakoek.

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 50,00 €

>5000<15000: 70,00 €

>15000<30000: 140,00 €

<30000<60000: 210,00 €

<60000<150000: 280,00 €

>150000<300000: 350,00 €

<300000<600000: 420,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 70,00 € (Testua aldaketa Eranskina, zuinketa akta eta kontsultak 70,00€).

|  |  |  |  |
|--|--|--|--|
| - Urbanizatu ezin den lurra eraikitze baimena: 105 €   |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Sailkatutako jarduera baimena edo aitortpena arduratsua : 140 €<br>4D eranskineko jarduerak: 172 €<br>Ikuskaritza bisitak: 365 € |  |  |  |
|  |  |  |  |

|  |  |  |  |
|--|--|--|--|
| - Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 230 €   |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Irekiera baimena edo aitorten arduratsua: 245 €  |  |  |  |
| 4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak 443 €<br>4D eranskinetako jarduerak: 260 €<br>Ikuskaritza bisitak: 365 € |  |  |  |
| Eranskina: 70 €  |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Lursailen zatiketa baimenak: 205 €   |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak: 210 €              |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Udal Planaren aldaketa zehatzak: 245 €   |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak : 315 €  |  |  |  |
|  |  |  |  |
| - Bestelako informeak, alegazioak: 175 €   |  |  |  |

#### JAUN SARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.
- 3 euro/ordua kantxako argia erabiltzeko
- 5 euro/ordua polikiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

#### UDAL ERAIKINETAN DAUDEN GELAK ERABILTZEKO TASA

Iharduera puntualak: Hiru ordu baino gutxiago, 10 euro. Hiru ordu baino gehiago, 20 euro.

Aldizkako iharduera, 6 euro sesio bakoitzeko, hiru orduko ihardueretarako para hiru ordutik aurreragoko ihardueratarako, 12 euro sesio bakoitzeko.

Egun osoko iharduerak: 20 euro.

**Bildutakoek aho batez onartzen dituzte 2022. Urterako tasa eta zergak eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.**

#### **6.- Mozioak.**

Ez dago.

#### **7.- Batzordeen informazioa.**

##### **Kultura Batzardea. Julen Beunzak ematen du informazioa.**

Olentzero abenduaren 24an ospatuko da baina jende multzoak ekiditeko, herrika antolatuko da. Beruetekoak Beruete, Igoa eta Arraratsko umeak elkarrekin bilduz Igoan, Gartzaron, Erbiti eta Orokietakoak Gartzaronen eta beste herrietakoak Jaunsaratsen elkartuz, ordutegi ezberdinetan.

##### **Gizarte Batzardea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Abenduko lehen astean pintxo lehiaketa ospatu zen, Orokietako ostatua izan zen garaile. Parte hartzaile guztiak balorazio ona egin dute eta pozik ibili den jendearekin.

##### **Hirigintza Batzardea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Arraratsko kontzejuak hala eskatuta ikuskapen bisita egin du udal arkitektoak Arraratsko Lardi etxera, honen egoera arriskutsuagatik. Udal arkitektoak idatziz egingo du ikuskapen txostena zehaztuz zeintzuk izan beharko litezke egin beharreko obrak arriskua ekiditeko. Txosten hau kontzejuari helaraziko zaio.

#### **8- Informazio orokorra.**

- Agenda 21eko laguntzaren ordainketa jakinari dute 49089.35 eurokoa, Apeztegierriko aterpea egikaritzeko proiekturako.
- Euskarabideak jakinarazi du ere 2021. Urteari dagokion laguntza ordainduko dutela 3.243 euro, justifikazioa bidali ondoren.
- Abenduaren 9ko datarekin jaso da Sepronak egindako txostena, Ihabengo abere ustiapen batean dagoen zakur baten egoeraren inguruan. Etxeko animalien babeserako 2019/19 Foru Legearen urraketa ondorioztatzen dute txostena horretan eta gainera ere amorruaren kontrako txertoa ez duela jarria eta jakinarazten diote udalari beraiek eskumenean dagoen txosten zigortzaileari hasiera emateko.



Udan antzeko txosten bat ere jaso zen Igoako ardiei Leitzako zakur batzuk egin zizkieten erasoen inguruan. Bertan ere udalaren esku uzten zuten 2019/19 Etxeko animalien Foru Legearen urraketa egonik txosten zigortzaileari hasiera ematea..

Azkeneko jakinarazpena aurreko astean jaso zen Berueteko bi bizilagun salatu zituztelarik bati txakurra kalean solte edukitzeagatik eta besteari amorruaren kontrako txertoa jarri gabe edukitzeagatik haren zakurrak.

2019/19 Etxeko animalien Foru Legearen arabera txosten zigortzaileei hasiera emateko eskumena udalena da baina kontutan hartuta udalak ez du ahalmenik eta aholkularitza zerbitzurik hau guztia aurrera eramateko Nafar Gobernuari adieraziko dio udalak ez duela ahalmenik eta berak ireki dezala prozedura zigortzailea beharrezkoa bada.

### **9. Erregu-galderak.**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:30 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.